

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

IRUNGO UDALA

Hirigintza eta Garapen Iraunkorrerako Arloa

*Iragarkia*

2019ko otsailaren 27an Alkatetza-Lehendakaritza honek 241 zenbakiko Ebazpen hau eman zuen:

«1. Behin betiko onartzea 6.301 Alarde esparruaren egikaritze unitatearen Urbanizazio Proiektua, I. eranskinean ezarritako baldintzapean.

2. Olaketa Alarde SL enpresari eskatzea obrak hasi aurretik abal hauek jar ditzala adierazten diren kontzeptupean:

– 102.060,45 €, urbanizazio lanak behar bezala egingo direla bermatzeko.

– 20.319 €, eremuaren barnean nahiz kanpoan obrek ukitutako bide, ondasun eta zerbitzu publikoak behar bezala mantentzeko.

– 23.476,30 €, zuhaitz landaketa egingo dela bermatzeko.

2. Erabaki hau irmoa da administrazio bidetik. Beraren aurka, aukeran, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, administrazioarekiko auziaren aurretik, hilabeteko epean, haren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, edo zuzenean aurkaratu Donostiako administrazioarekiko auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, haren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta; hori guztia, egoki iritzitako beste edozein aurkeztetik aparte.»

Irun, 2019ko martxoaren 5a.—Hirigintzako teknikaria, alkatetza eskuordetuta. (1480)

ERANSKINA

BALDINTZAK

1. *Antolamendua.*

– Urbanizazioan garajeetarako aurreikusten diren sarreretan, goitiko bistan espaloia gorago marraztuko da bidegorriarekiko eta galtzadarekiko, eta espaloien lehen 50 cm-tan ibilgaiak sartzeko espaloia beheratzea planteatzen da. Zeharkako profilen planoetan, ordea, (7. eta 10. Profilak eta ST-1 sekzio-mota), espaloia erabat beheratuta marrazten da bidegorriaren eta galtzadaren parean. Oinezkoen ibilbideak lur-arrasean joan behar du, gorabeherarik gabe.

– 5. zenbakiko atariaren atzealdetik lokal batera sartzen da, ez da garaje baterako sarrera; beraz, 5. eta 6. atariaren atzealdetik pégitekoa den bidegorria espaloien kota berean joan daiteke, eta hala joan behar du, eta ez galtzadaren kotara, proiektuan marraztu den bezala.

– Eraikinaren atzealdeko lorategiak, Alarde kalekoak, ezpondan egin behar dira, malda espaloia alderantz dutela eta faxadaren zati bat estaliz, Alarde kaleko espaloitik bistan geratzen diren erdisotoko hormen inpaktu bisuala txikiagotzeko.

AYUNTAMIENTO DE IRUN

Área de Urbanismo y Desarrollo Sostenible

*Anuncio*

Con fecha 27 de febrero de 2019 por la Alcaldía Presidencia, se ha dictado la siguiente Resolución n.º 241:

«1.º Aprobar definitivamente al Proyecto de Urbanización de la Unidad de ejecución del ámbito 6.301 Alarde con sujeción a las condiciones recogidas en Anexo I.

2.º Requerir a Olaketa Alarde SL para que deposite, antes del inicio de las obras de urbanización, los siguientes avales y por los conceptos que se indican:

– 102.060,45 €, en garantía de la correcta ejecución de las obras de urbanización.

– 20.319 €, en garantía del correcto mantenimiento de viales, bienes y servicios públicos dentro y fuera del ámbito, afectados por el desarrollo las obras.

– 23.476,30 €, en garantía del cumplimiento de plantación del arbolado.

2.º La presente Resolución pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.»

Irun, a 5 de marzo de 2019.—La técnico de Urbanismo, p.d. del alcalde. (1480)

ANEXO

CONDICIONES

1. *Ordenación.*

– En los accesos a garajes previstos en la urbanización, se dibuja, en los planos de planta, la acera elevada respecto del bidegorri y la calzada, planteando el rebaje de acceso para los vehículos en los primeros 50 cm de la acera. En los planos de perfiles transversales en cambio (perfiles n.º 7, n.º 10 y sección tipo ST-1), la acera se representa rebajada por completo a la altura del bidegorri y la calzada. El itinerario peatonal debe mantener rasante continua, sin altibajos.

– La trasera del portal número 5 dispone de acceso a un local, no se trata de un acceso a garaje, en consecuencia el bidegorri proyectado por las traseras de los portales 5 y 6 puede y debe discurrir a cota de acera, y no a cota de calzada como se representa en el proyecto.

– Los jardines de la trasera del edificio, los que se sitúan en la calle Alarde, se deben ejecutar en talud, con pendiente hacia la acera y tapando parte de la fachada, para rebajar el impacto visual de los muros de semisótano, que quedan vistos desde la acera de la calle Alarde.

Kale hasieran Alarde kalea gurutzatzen duen oinezkoen igarobidean, Eusebio Pedros Alardeko Generala kaletik jaisten diren oinezkoen ibilbidearekin aurrez aurre geratzen den horretan, zuzendu beharra dago proiektuan bidegorria eta espaloia bereiztekoa den baranda, oinezkoen joan-etorriari trabarik ez eragiteko, eta behar adina bereiztu bizikleta erreitik, estutasun sentasaziorik ez sortzeko.

## 2. Zoladura.

– A8.3 Zoladura Xehetasunak planoko I2-Xehetasuna ibilgailuen pasabideei aplikatzeko izango da soilik, oinezkoen pasabideetan zintarria zoladuraren arrasean geratu beharko da inolako kokarik gabe, plano bereko H xehetasunean irudikatzen den moduan.

– Plaza eta espaloietan jarri beharreko zoladurak udal zerbitzu teknikoaren oniritzia izan beharko du jarri aurretik.

## 3. Zerbitzuak.

– Argiztapenaren azterketaren arabera, eskasa da biribilgurenean ondoko espaloirako proiektuan jasotako argiztapena, eta uniformetasun gutxiakoa. Espaloi horretako argiztapena hobetzea planteatu beharko da, argi puntu gehiago jarriz edo proiektuan jasotako puntuen banaketa birplanteatuz. Horretarako, argien azterketa berri bat egin beharko da, eta horrek udal teknikarien onespina izan beharko du.

– Miguel de Ambulodi eta Alarde kaleak gurutzatzen diren tokian argiztapenaren sare berriaren kanalizazioak lehengo sarearen kanalizazioekin konektatu beharko dira.

– Telekomunikazio operadore desberdinen kanalizazioak zanga beretik bideratuko dira; eta operadore guztiak sartzeko adina hodi-kopurua izango duenez, operadore bakoitzarentzat bereizita egongo diren kutxatilik eta harguneak eduki ahalko ditu.

– Aurrekontuan dago jasota baina ez dago planoetan irudikatuta ureztatze automatikoko sarerako hodien eta kableatua- ren instalazioa, bere aginte-koadroa eta dagozkion elektrobulbulak barne; eta, halaber, aspertsore edo tantaz tantako urezta- ztearen instalazioa, leku horietan landatuko denaren baitan. Instalazio hori egin beharra dago.

– Ureztatze aginte-koadorako hargune elektrikoa udal argiteriaren koadro batetik egin behar da, argiteria koadrotik urezta- pen automatikoko aginte-koadoraino zirkuitu independente bat duela.

– Hornikuntza eta saneamendu azpiegiturak egiterakoan betiere Txingudiko Zerbitzuen irizpideak jarraitu beharko dira, eta sare osoan kalitatearen kontrolerako probak egingo dira, hala nola barne presioa, hermetikotasuna, hoditerien garbita- suna eta desinfekzioa eta kamera bidezko ikuskapena.

– Zerbitzuen azpiegiturretan enpresa hornitzaileen arauak beteko dira.

## 4. Baldintza orokorrak.

– Obra egikaritzekoan, Irungo udal-mugartean urbaniza- zio-obrak egiteko Baldintza Tekniko Orokorrak bete beharko dira.

– Irungo Udaleko Mugikortasun, Bide Publiko eta Obra arlo- ari jakinarazi egin beharko zaio obren hasiera; izan ere, arlo hori arduratuko da obraren jarraipena egiteaz eta urbanizazio-obre- tarako udal irizpideak ezartzeaz, gero obra horien harrera egi- teko.

– Ziurtatu egin beharko da inolako azpiegitura, obra zibil edo transformazio-zentrorik ez dela egongo edo igaroko arbol- en azpitik.

– Hiri-ingurune barruko obra denez, non egin beharreko lur- mugimendua oso garrantzitsua den, batez ere hondeaketa eta

En el paso peatonal que cruza la calle alarde al inicio de la calle, que queda enfrentado con el itinerario de los peatones que bajan desde la calle Eusebio Pedros Alardeko Generala, se debe corregir la posición de la barandilla proyectada para separar el bidegorri y la acera, para no obstaculizar el itinerario peatonal y separado suficiente del carril bici para no generar sensación de estrechez.

## 2. Pavimentación.

– El Detalle-I2 del plano A8.3 Detalles de Pavimentación será únicamente de aplicación para vados de vehículos, en vados peatonales el bordillo debe quedar totalmente al ras del pavimento sin ningún tipo de escalón, tal y como se representa en el detalle H del mismo plano.

– El pavimento a colocar en las zonas de plazas y aceras deberá contar con el visto bueno de los servicios técnicos municipales previamente a su colocación.

## 3. Servicios.

– La iluminación proyectada en la acera contigua a la glorieta se observa escasa en el estudio de iluminación, con una uniformidad baja. Se deberá plantear la mejora de la iluminación en esa acera colocando mayor número de puntos de luz o replanteando la distribución de las proyectadas. Para ello se deberá realizar un nuevo estudio lumínico que deberá contar con la aprobación de los técnicos municipales.

– En el encuentro de la calle Miguel de Ambulodi con calle Alarde, las canalizaciones de la nueva red de alumbrado se deben conectar con las canalizaciones de la red existente.

– Las canalizaciones de los distintos operadores de telecomunicaciones irán por la misma zanja, que disponiendo del número de tubos suficiente para dar cabida a todos, podrá tener arquetas y acometidas diferenciadas para cada operador.

– La instalación de conducciones y cableado para una red de riego automática, con su cuadro de mando y sus correspondientes electroválvulas, así como la instalación de aspersores o riego por goteo en función de la plantación a ejecutar en los mismos se recoge en el presupuesto pero no se representa en los planos. Esta instalación se debe ejecutar.

– La acometida eléctrica al cuadro de mando de riego se debe realizar desde un cuadro de alumbrado municipal con un circuito independiente desde el cuadro de alumbrado al cuadro de mando del riego automático.

– En la ejecución de las infraestructuras de abastecimiento y saneamiento, se deberán seguir en todo momento los criterios de Servicios de Txingudi, y se realizarán en la totalidad de la red pruebas de control de calidad como pruebas de presión interior, estanqueidad, limpieza y desinfección de las tuberías e inspección con cámaras.

– En las infraestructuras de los distintos servicios, se deberán cumplir las normas de las empresas suministradoras.

## 4. Condiciones generales.

– En la ejecución de la obra se deberán cumplir las Condiciones Técnicas Generales para las obras de urbanización en el término municipal de Irun.

– Se deberá comunicar del inicio de las obras al Área de Movilidad, Vía Pública y Obras del Ayuntamiento de Irun, que se encargará de realizar un seguimiento de la obra y marcar los criterios municipales en las obras de urbanización, para la posterior recepción de las mismas.

– Se deberá asegurar que ninguna infraestructura, obra civil o centro de transformación se sitúe o discurra bajo los árboles.

– Al tratarse de una obra dentro de un entorno urbano en el que el movimiento de tierras que se debe realizar es impor-

kanpotik obrarako lur-ekarpena, arreta berezia eduki beharko da bideak garbi edukitzeko.

tante, sobre todo la excavación y transporte de tierras de fuera a la obra, se deberá tener especial cuidado en mantener limpios los viales.